

AURKEZPENA

Oso ohikoa da ikasle batek partikular batera joateko beharra izatea eskolan lantzen ari dena hobeto ulertzeko edo bere notak altxatzeko; baina, zer gertatzen da **laguntza berezia** edo pertsonalagoa behar duten ikasle horiekin? (dislexia, AFN+H eta autismoa dituztenekin) Zenbat partikular existitzen dira laguntza berezia behar duten ikasleei benetan behar duten tratua eta laguntza eskaintzen dutenak eta hauen beharretara egokitzen direnak?



Gu Olaia, Eider, June, Libe eta Ane gara, Urretxu-Zumarraga ikastolako lehenengo batxilergoko ekonomiako ikasleak, eta gizarteko behar bati erantzuteko proiektu bat aurrera eramateko aukera izan genuenean, hasieratik argi genuen: produktu baten ordez, gizartearentzat gure ustez benetan baliagarria izango den zerbitzu bat eskaini nahi genuela.

Horren harira, eta hasieran egindako galderei erantzunda, guk, gure inguruan, ez dugu halako zerbitzurik ezagutzen, eta hutsune hori betetzea dugu helburu. Horregatik, gure inguruneari begirada bat eman ondoren, eta askotan laguntza berezi hau behar duten ikasleek ez dutela behar duten arreta pertsonalizatu hau jasotzen ikusi ondoren, hezkuntza-zailtasunak dituzten ikasleei ulermen eta tratu egokia eskainiko dizkien partikular zerbitzu espezializatu bat aurrera eramatea erabaki dugu: “Elkarrekin eraikiz”.

Irakasle bati gai honen inguruan galdetu ondoren, halako diagnostikoak gero eta ikasle gehiagok dituztela eta datozen urteetan kopuru hauek gora egingo dutela esan digu; beraz, beharra badago eta handitzen joango da, bestalde, COVID-19 garaia ere ikasleen garapen kognitibo eta sozialean eragin handia izan zuen, eta ondorio horietako batzuk gutxinaka orain azaleratzen hasi dira eta etorkizunean gero eta gehiago ikusiko ditugu.

Hori guztia kontuan hartuta, egoera aztertu dugu, arazo bat identifikatu dugu eta horrekin gaur egunez gain, etorkizunean gizarteak izango duen behar bat aurreikus dezakegu. Testuinguru horretan kokatzen dugu gure zerbitzua: **hezkuntza-zailtasunak dituzten ikasleei laguntza berezi eta pertsonalizatua eskaintzeko asmoa duen enpresa berri bat.**

